

Enara Azpitarte
Naia Mendia
Laura Solana
Eneko Munitxa
Miguel Lancao

BEZEROEKIKO HARREMANA

Gure bezeroekiko harremana zuzena izango da. Gure bezeroekin kontaktua izaten saiatuko gara eta haien esperientzia nolakoa izaten den galdetuz. Haien haurren eta familien arteko erlazioa eta haurren garapena nola doan eta nola egiten duen aurrera behatzen egongo gara eta arreta jarriko dugu. Haur bakoitzaren familiako kide batekin gutxienez hitz egiten saiatuko gara bi astetik behin, haien sentipenak eta haurrak zer nolako esperientziak dituen jakiteko eta beraien zein gure ikuspuntua jakinarazteko.

Merkatu-segmentuaren aldetik lortu nahi duguna hurrengoko hau da; jendartean eta gure aisialdi esparrura doazen pertsona guztiek kontzientziaztea eta haurren garapenean parte hartze handia izatea. Haurren eta familiaren ongizatea bermatzea, ekintza desberdinekin eta denbora elkarrekin pasatzen.

Gure bezeroei, lehen esan bezala, bi astetik behin batzar bat egingo genieke haien esperientziak eta sentipenak plazaratzekoko eta batzen ere haien haurren garapena nola doan jakinarazteko, haien ikuspegitik. Gure bezeroen keak zeintzuk diren jakinaraztea nahi dugu eta zer hobetu dezakegun jakinaraztea nahi dugu, horregatik nohin behinka galdetegi bat emango diegu, gure egunerokotasunean egongo diren familiei, eta ikastaro edo hiketaldi bakoitzaren amaieran zer nolakoa izan den galdetuko diegu, zerbait hobetu dezakegun jakiteko, eta baita ere zer irakaskuntza gehiago izatea nahiko lukeen jakiteko.

Bezero berriak erakartzeko gure markiteneko gerenteak hainbat iragarki egingo lituzke zenbait leku desberdinetan, hala nola, gure webgune pertsonalean, Durangotik zehar kartelak jarri eta guretzako metodorik egokiena hurrengoko hau da: ahoz aho. Gure bezeroek, haien laginei kontatuz eta baita gure familiek haien lagunei kontatuz bezero gehiago lortuko ditugu.

Gure enpresak, bezeroei zerbitzu automatizatu bat eskaintzen die, gure zerbitzuetaz disfrutatzeko webgunearen bitartez apunta daitezke gurera etorri barik, eta baita hainbarko prestakuntza on-line bitartez izango dira. Horrez gain, badago aukera gure enpresara etortzea eta bertan izena ematea eta haurren eta familien arteko ekintza guztiak era pertsonalean izango dira. Gure webgunean eskaerak, zalantzak, hobekuntzak, iritziak etab.

Enara Azpitarte
Naia Mendia
Laura Solana
Eneko Munitxa
Miguel Lancao

emateko aukera emango diegu, baita ere telefonoz esan ditzakete edota gure enpresara joanez eta gurekin aurrez-aurre hitz eginez.

Guretzako oso garrantzitsua da gure bezeroen ongizatea, eta horregatik beharrezkoa ikusten dugu haien zalantzak, iritziak eta ikuspuntuak guri jakinaraztea. Horrela guk hobekuntzak egin ditzakegu eta gure bezeroak guregan konfiatzen jarraituko dute.